

II. Mendilur jaia

10/06/03

Oihana Gallo San Roman



Pixkanaka hedatzen ari den elkarteak da Mendilur. Baina jendartean hedatzeaz gain haren toki fisikoan ere hedatzea ezinbestekoa dute. Animaliekin egokitutako terapiak egiten dituzte eta orain arte kalean egitera behartuta egon dira. Eguraldiaren menpe bizi garenaz, toki itxi bat eraikitzea da haien ametsa. Lakuntzan bertan kokatuko litzateke etxola hau baina honetarako laguntza ekonomiko handia behar izango dute. Hona hemen gonbitea: II. Mendilur jaia.

Mendilurreko boluntarioekin hizketan

Josune Azpiroz eta Aiala Razkin

-Zer da zehazki Mendilur elkartearen egiten duzuen?

Animaliekin egokitutako terapia egiten dugu. Animaliekin behar bereziak dituzten haurrekin lan egiten dugu igandero.

-Nolako behar bereziak lantzen dira terapia honen bidez?

Josune: Minbizia, Down sindromea, depresioa, autismoa. Guk 12 urte bitarteko haurrekin lan egitea erabaki genuen eta bere garapenean atzerapen bat daukaten haurrak etor daitezke; buruko paralisiren bat, autismoa,...

Aiala: Alejandro Ibarra izan zuen ideia eta gu batu ginen. Zakurrak gustuko ditugu eta gertu arazoren bat duen norbait daukagu.

-Zu, Josune, elkarteko psikologoa zara, ez?

Josune: Bai. Zakurrak baditugu eta psikologoa naiz; beraz bi gauzak uztartzen dituen elkarteak da hau.

-Badira urte batzuk elkarteak sortu zela. Zer moduz orain arteko martxa?

Oso ongi. Gurasoak gero eta inplikatuago daude eta gu boluntarioak oso gogotsu eta indartsu gaude. Haur horiei laguntzeko dena ematen ahalegintzen gara.

-Zenbat boluntario zaudete egun?

Alejandro zakur hezitzailea, Josune psikologoa eta 4-5 boluntario.

-Gurasoek elkarte honetan garrantzia dutela esan duzue. Zergatik?

Beste ikuspuntu bat eman dezakete. Haien etxean daukate horrelako haur bat eta orduan beraien ikuspuntua eta iritzia kontuan izatea ezinbestekoa da guretzat. Azken finean denon artean egindako proiektu bat da gurea.

-Eta zenbat haur joaten dira zuenera gaur egun?

Orain 4 edo 5. Baina helburua da jende gehiagorekin lan egitea. Kontua da orain ditugun baliabideekin ez dela batere erraza.

-Nolakoa da egun bat Mendilurren? Igandean elkartu eta zer egiten duzue?

Txakurtegiaren elkartu eta bakoitzak haur bat hartu eta zakurra hartuta paseotxo bat ematen dugu ingurutik. Psikomotritzitatea lantzen dugu, guk esandakoa errepikatu behar dute eta zakurrari aginduak eman behar dizkiote. Askotan ardiek ere egiten dugu. Motritzitatea lantzeko zirkuitu bat egiten dugu.

-Zeintzuk dira AET-k dituen onurak?

Begi bistan dago terapia natural bat dela, naturarekin eta animaliekin kontaktuan egotea onuragarria da haur hauentzat. Onura fisikoen artean adibidez, tonu muskularra hobetu egiten da, gaitasun motoreak handitu, odol presioa murriztu, botiken menpekotasuna murrizten du, sozializazioan zailtasunak dituztenekin laguntzen du, adiskidetasun sentimendua handitu, antsietatea murriztu, erlaxatzen du, arreta mantentzeko ona da, autoestima eta autokonfidantza hobetzen du... Zerrenda luzea.

-Zuek ezagutzeko zer egin behar dute sakandarrek?

Garrantzitsuen gogoia izatea eta proiektuan sinestea. Behar bereziren bat behar duen 1-12 urteko haur bat duen oro gurera etor daiteke nahi duenean. Ez da beharrezkoa zakur bat izatea. Etorri, saiatu eta ikusi. Argi dago ez dela pilula magiko bat baina pixkanaka onurak ikusten dira.

Proiektu berri bat buruan

Eguraldiaren menpe izaten dira maiz Mendilur elkartearen eta honi aurre egiteko etxola aurrefabrikatu berri bat egiteko asmoa daukate. Leku fisiko eta itxi baten premia aspaldi dute baina arazo ekonomikoak direla medio orain arte ezin izan diote erronka honi heldu. Horregatik larunbat honetan II. Mendilur jaia antolatu eta bertan bildutako sosa proiektu berri honetara bideratuko dute.

Etxola honen zati bat, negutegi antzeko bat izango da. Kristalekin itxitako erabilera anitzetarako gela bat da azken finean negutegia. Gela honetan motrizitatea eta lantzeko zirkuitu bat jartzeko asmoa daukate. Gela nagusi honetaz gain, masajeak emateko gela bat, erabilera anitzetarako beste gela bat eta komuna izango ditu etxola berriak.

Eraikinarekin batera terapia berriak egiteko eta eskaintza zabaltzeko aukera izango da.

Psikomotrizitatea, sorkuntza plastika... Azken bi hauetan gurasoen inplikazioa nahitaezkoa dela azpimarratu dute boluntarioek.

Gurasoekin hizketan

Santiren ama: Susana

Santi eta bere familia orain dela 2 urte hasi ziren Mendilur elkartearen parte hartzen eta Susanaren esanetan esperientzia oso ona izan da. Santik sekulako aldaketa izan du eta oso zentratuta ikusten dute. Ilusio handiz hartu dute proiektu berriarena; eguraldia dela eta askotan terapia egiteko zailtasunak dituztelako.

Isaacen ama: Ada

Isaacen ere 2 urte daramatza Mendilurren eta Sakanan bertan halako zerbitzu bat egotea sekulako abantaila dela argitu du bere amak. AET egiten hasi zenetik Isaacen beldurra kendu du, ongi sentitzen da, gustura etortzen da. Keinuak egiten hasi dela azpimarratu nahi izan du Adak. "Liluratuta nago. Zure haurrari tarte bat eskaini nahi diotenak egotea oso baliagarria da niretzat. Balio handia daukate Mendilurreko boluntarioek."

Ikerren ama: Belen

Iker da taldeko txikiena eta 3 urte bestetik ez dituen arren, zakurraren ondoan egotea lortu dute denbora oso gutxian. Orain dela 6 hilabete hasi ziren Iker eta bere familia Mendilurrara etortzen Josuk eta Josunek gomendatuta. "Ibarrean kontu oso berritzailea da hau eta ideia asko dauzkagu buruan aurrera jarraitzeko" dio Belenek itxaropentsu. Etxola berria eraikitzen dutenean errehabilitazio fisiko zein psikikoa egiteko aukera izango dute haurrek eta zerbitzu duina eskaini ahal izango dute.

Mendilur II. Jaia

Proiektu berria martxan jartzeko, biharko, ekainaren 5erako, II. Mendilur jaia antolatu dute. Aurreko jaia Lakuntzan egitea aukeratu bazuten ere, aurtengoa Altsasun izango da. Bertako peñetako batzordeak eta Mendilur elkarteak egitarau zabala prestatu dute eta antolatzaileen esanetan adin guztietarako aproposa.

11:00 Txakur erakusketa eta Zaldi ibilaldiak

12:00etan hitzaldia: Francisco Lara AETn aditua.

16:00 Artzai txakur erakusketa antzarrekin eta haurren parte-hartzarekin. Joseba Goikoetxea (Gorriti)

Iker Ozkoidiren erakustaldia.

17:00 Agility erakusketa. Club agility lurreta (lurreta)

18:00 "Eraso eta defentsa" eta "Zinemako Txakurrak" erakusketa. Rafa Casado (Madrid)

19:00 Artzain txakurren erakusketa (ardiak eta behiak) Alejandro Ibarra (Lakuntza)

20:00 Zozketa

21:30 Bertso afaria (Julio Soto eta bere lagunak)





[Aurrekoak ikusi]

Bierrik Fundazioa | Foruen plaza 23 ,1. | 31800 Altsasu (Nafarroa) | Tfnoa.: 948 56 42 75 | Faxe: 948 56 21 07 | E-mail: guaixe@guaixe.net
[Web Mapa](#) | [Lege Oharra](#) | [Datuak Babesteko Politika](#) | [Web Diseinu eta Programazioa](#)

